

# ‘Matxinoak behar ditugu...’

**MEXIKOKO AIREPORTU BERRIAREN AURKAKO PROTESTAK.** Hainbat hilabetetako okupazioaren ostean, erresistentziaren ikur bihurtu da Mexiko Hiria iparraldean den San Salvador Atenco herrixka

Harald Neuber | SAN SALVADOR ATENCO

A tzeritar taldetxoari ongi etorri labur baina adeitsua egin ondoren, jeopera deitu du gidariak. «Hiru lagun igo daitezke hona», esan du, «besteak zama artera, atzean». San Salvador Atenco du izena gure helmugak, munduko hiririk handienaren inguruko herrixka ugarietako bat. Auto-bidean minutu batzuk egin ondoren, errepidearen bi aldeetara dagoen hesi metalikoa hautsirik agertzen da kilometro batez. «Urriko lehen bat-bateko okupazioaren ondoren apurtu zuten hesia», argitu du gero Americak, 19 urteko ikasle Atencorrak. Hesol eta txarrantxaren atzean zelai irekiak daude begia heltzen den tokiraino. Sastrakak erakusten duenez, aspaldi daude sorook lugorri utzita. Gidariak abiadura azkartu du, eta eguzkiak jeeparen atzealdea kiskaltzen duen bitartean, Amerika eriarekin ezker-

## DEKRETUA

**Mexikoko Gobernuak 2001eko urrian erabaki zuen hiriburuaren inguruko bost herritako lurak desjabetzea**

## HELBURUA

**Urtean 21 milioi lagunek erabiltzen dute egungo aireportua; berria 60 milioirentzako egin nahi du gobernuak**


## ELKARRIZKETA

**Soilik hainbat borroka, atxiloketa eta bahiketaren ostean agertu da Fox hitz egiteko prest**

eskuin erakusten ari da gidariaren kabinatik, eta paperezko orri bat jarri du kristalaren aurka: «Hori guztia aireportuarena izatekoa zen». Baiezkua egiten dugu buruarekin. Galdera geroako utzi beharko dugu, haize txistulariak eta motorren harribotsak ezinezkoa bihurtzen dute elkarrizketa.

## Desjabetzeko erabakia

Dekretua 2001eko urriaren 22an onartu zuten, eta hainbat egunen buruan, Atenco eta hiriburutik dozena bat kilometrora diren beste lau bat herrixka hustu zituzten: nazioarteko aireportu handi bat eraikitzeko tokia egiteko tokia behar zuten, eta lurak desjabetzen hasi ziren. 60 milioi lagunek erabiliko omen dute aireportua. Gobernuak miliardoak agindu zituen inbertsioetan. Egun lanean ari den aireportuak 21 milioi bidaiari inguru hartzen ditu urtero. Handitzea ezinezkoa litzateke, Gobernuaren arabera, ha-



ALFREDO ESTRELLA / EPA

**AIREPORTUARI EZ.** Beren lurak saltzeko prest ez daudela adierazi dute herritarrek.

ren inguruan hiria hazi egin baita. «Lehenengo egunetan bertako administrazioaren aurrean egin genuen protesta», esan zuen Atencon jaiotako David Huertas hirigileak. Bertako politikariek, bai PRI gobernuko al-

derdikoak zein PRDko sozialdemokratek, ezin zutela ezer egin adierazi zuten. «Orduan, beren ondasunak hartu eta ospa egin zuten», dio gizonak haserre. Atencoko azoka enparantzatik bat-batean sorturiko antzokia ikusten da: bilkura areto bat, informazio arbel bat eta plastikozko panelekin mugaturiko sukalde komunala. Huertasen aurrean 200 bat gizon-ema-kume daude bildurik. Arbelean hurrengo egunetarako deialdiak daude, eta iraganean eginitako ekintzetan gastatutakoaren batuketa bat. Pareta batean margoturiko irudi erraldoi batek ilustratzen du tokia Mexikoko Iraultzako eszenekin. Emiliano Zapata heroia iraultzailea agertzen da. Ukabila altxaturik ikusleei zuzen begira dago, begitarte ilunez. Haren gaineko ortzean, bi marraz ezabaturiko hegazkin bat ageri da: *Fox Air* jartzen du airekoan —Vicente Fox Mexikoko presidenteari aipamen eginez—. Hizki gorritz eskualde oso baten erabakia dator: *Tierra si, aviones no!* (Lurra bai, hegazkinik ez!).

Gobernuaren jokaldi autokratikoaren inguruko haserre handia da, eta ez da baretu. Herritarrek salduta sentitzen dira: «Ez ziguten behin ere galdetu», dio emakumezko batek mikrofonoan.

Uztailaren 11tik 15era bitartean hainbat borroka, atxiloketa eta bahiketa gertatu ondoren



ISMAEL ROJAS / AP

**GATAZKAREN BIKTIMA.** Joan den asteazkenean Jose Enrique Espinosa Atencoko nekazaria hil zen, uztailaren 13an protestan ari zela buruan jaso zituen kolpeen ondorioz. Ehunka kidek haren aldeko isilunea egin zuten biharamunean.